

**2025eko EKAINAREN 23AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA** **20 zk.**

Udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko ekainaren 23an, arratsaldeko ordu batean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko.

Batzarkide hauek bertaratu dira:

Batzarburua XABIER TXURRUKA FERNANDEZ JN.

Batzarkideak GARBIÑE OIARBIDE IRURETAGOiena AND
JESUS ARANA GOMEZ JN.
IRUNE URBIETA ALBERDI AND.
GERVASIO GABIRONDO FERNANDEZ JN.
INAXIO ILLARRAMENDI LIZARRETA JN.

Idazkaria AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA AND.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaia aztertu eta eztabaidatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

2025eko ekainaren 16ko bilkuraren akta aho batez onartu dute, zuzenketarik egin gabe.

2.- GIZARTE ZERBITZUETAKO DIRULAGUNTZEN EBAZPENA

- **Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak egiteko dirulaguntzak**

Espedientea: 2025G9990001

2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak HEGOALDEKO HERRIALDE POBRETUETAN GARAPEN PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK emateko deialdia onartu zuen.

Balorazio Batzordeak ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egin ondoren, INSTRUKZIO ORGANOAK behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamena egin zuen, eta interesdunei horren berri eman zitzaien.

Ondoren, SINERGOS elkarteak alegazioa aurkeztu dio behin-behineko ebazpen-proposamen horri.

Instruktoreak alegazio horri erantzuteko egindako txostena ikusita eta INSTRUKZIO ORGANOAK horrela proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau **ERABAKI DU**:

Lehen.- Jarraian adierazitako eskatzaileei dirulaguntza hauek esleitzea, 0501.481.02.231.81.2025. kontura:

	ERAKUNDEA	IFZ	PUNTUAK	Tokiko bazkidea	Dirulaguntza	Emandakoa proiektu osoaren %
1	TAU FUNDAZIOA	G20823654	81	Instituto Politécnico Tomas Katari - Iptk	18.500,00 €	68,96%
2	CALCUTA ONDOAN ONGD	G20696175	67	Fundacion La Morera	18.500,00 €	69,77%
3	ASOCIACION ONG ORI-ZARAUZ	G20570529	64	Hermanas De La Caridad Rwanda	18.500,00 €	74,28%
4	ASOC.MISIONEROS SEGLARES VIVENCIANOS	G84113489	64	Comunidad Misionera Laica Vicenciana(Cmlv)	18.200,00 €	71,09%
5	FUNDACIÓ PRIVADA ULLS DEL MON	G62627450	63	Departamento Nacional De Oftalmología Ministerio De Salud Pública De La República Árabe Saharaui Democrática (RASD).	18.000,00 €	80,00%
6	COLABORACION ESFUERZO ACOES ZARAUZ	G20944229	60	Fundación Colaboración Esfuerzo	18.000,00 €	26,16%
7	ASOCIACION AMS MUNDO SOLIDARIO ELKARTE	G75137034	57	Activos Por Un Mundo Solidario Nicaragua	18.500,00 €	20,60%
8	TXIMELAGUA ONGD	G75013672	55	Los Pipitos Región Norte	17.496,00 €	78,39%
9	PROYDE -PROEGA	G20722336	54	Beningo Golkoko Kristau Eskoletako Anaiak	18.000,00 €	69,80%
10	IBARRATIK MISIO TALDEA	G20886867	53	Fraternidad Verbum Dei	7.193,12 €	80,00%
GUZTIRA					170.889,12 €	

Bigarrena.- Elkartei dirulaguntzaren esleipena jakinarazten zaienean, kopuru osoaren % 70a ordaintzea:

	ERAKUNDEA	DIRULAGUNTZA	% 70
1	TAU FUNDAZIOA	18.500,00 €	12.950,00 €
2	CALCUTA ONDOAN ONGD	18.500,00 €	12.950,00 €
3	ASOCIACION ONG ORI-ZARAUZ	18.500,00 €	12.950,00 €



4	ASOC.MISIONEROS SEGLARES VIVENCIANOS	18.200,00 €	12.740,00 €
5	FUNDACIÓ PRIVADA ULLS DEL MON	18.000,00 €	12.600,00 €
6	COLABORACION ESFUERZO ACOES ZARAUZ	18.000,00 €	12.600,00 €
7	ASOCIACION AMS MUNDU SOLIDARIO ELKARTEA	18.500,00 €	12.950,00 €
8	TXIMELAGUA ONGD	17.496,00 €	12.247,20 €
9	PROYDE -PROEGA	18.000,00 €	12.600,00 €
10	IBARRATIK MISIO TALDEA	7.193,12 €	5.035,18 €
GUZTIRA		170.889,12 €	119.622,38 €

Hirugarrena.- Laguntzaren bigarren zatia (% 30) erabilera justifikatu ondoren ordaintzea.

Laugarrena.- SINERGOS elkarteak aurkeztutako alegazioa ez onartzea eta, ondorioz, elkarte horri dirulaguntzarik ez ematea adierazitako arrazoiengatik, Instruktoarearen txosteneko argudiotan oinarrituta:

ERAKUNDEA	ARRAZOIA
SINERGOS ELKARTEA	Gutxiengo puntuazio ez lortzea Herrian legez osatutako ordezkartzarik ez

Bosgarrena.- Halaber, ondorengo elkarteari ere dirulaguntzarik ez ematea, adierazitako arrazoiengatik:

ERAKUNDEA	ARRAZOIA
FUND PARA LA PROMO Y DESARROLLO DE BANGASSOU	Gutxiengo puntuazio ez lortzea Ez du genero-ikuspegirik.

Seigarrena.- Sinergos elkarteari Instruktoarearen ekainaren 16ko txostena jakinaraztea.

3.- ESKARI GALDERAK

Ez du inork hitz egin gai-zerrendako puntu honetan.

Aztertzeke besterik ezean, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu bata eta bost direnean eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

